

Ordizian, 2011ko Otsailaren 25ean, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

| | |
|--------------------------------|--------------------------|
| Jon Txurruka Etxezarreta jauna | PNV taldea |
| Belén Maiza Urrestarazu andrea | EA Taldea |
| Iñaki Dubreuil Churruca jauna | PSE/EE (PSOE) taldea |
| Jose J.Lopez Fernandez jauna | PSE/EE (PSOE) taldea |
| Mónica Marañón Basarte andrea | PSE/EE (PSOE) taldea |
| Mikel Leunda Semperena jauna | EB-Berdeak/Aralar taldea |
| Carlos Gonzalez Astiz jauna | EB-Berdeak/Aralar taldea |
| Iñigo Manrique Cía jauna | PP taldea |

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

| | |
|-----------------------------------|------------|
| Miren Auzmendi Urkiola andrea | PNV taldea |
| Alejandra Iturrioz Unzueta andrea | PNV taldea |
| Iban Asenjo Garde jauna | EA Taldea |

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi Jauna


ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK

.- Manrique jauna 3. puntuan azaldu da.

.- Manrique jauna eta Txurruka jauna 4. puntuan joan dira (etenaldia eta gero).



AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2010eko abenduaren 3an egindako Osoko Bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.
.....**3.orr.**
- 2.- Amiantoaz Ordiziako Euskal Sozialisten Alderdi Politikoak aurkeztutako mozioa.
.....**4.orr.**
- 3.- “NAZIOEN MUNDUA-ERABAKITZEKO ESKUBIDEA” izenburuarekin EAK aurkeztutako mozioa.
.....**9.orr.**
- 4.- ELA eta LABek Udalaren akordioaren kontra jarritako administrazio auzietako errekurtsoaren berri ematea, langile publikoei soldata jaisteagatik.
.....**12.orr**
- 5.-Eraikin eta etxebizitzetako irisgarritasun lanak egiteko diru-laguntzen ordenantza.
.....**14.orr**
- 6.-Aparkaldi mugatua arautzen duen ordenantza aldatzea.
.....**14.orr**
- 7.-EIOZen hobaria.
.....**14.orr**
- 8.- Ipar-Hegoa diru-laguntzen deialdia.
.....**14.orr**

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

- 9.- Oianguren eta hari dagozkion administrazio kontzesioaren ebazpena.
.....**14.orr**

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK


.....**22.orr.**

ORDUTEGIA:

HASIERA ORDUA: 8,00

BUKAERA ORDUA: 10,25





Jarraian eguneko lehen puntuaren berri eman da.

1.-2010eko abenduaren 3ko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2010eko abenduaren 3an ohiko deialdian egin zen bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV 2, EA 1, PSE-EE (PSOE) 3, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.




Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren bigarren puntuaren berri eman du:

2.- Amiantoaz Ordiziako Euskal Sozialisten Alderdi Politikoak aurkeztutako mozioa.

Proposamena

Amiantoa, asbesto bezala ere ezaguna, minbizia sortzen duen elementu arriskutsuenetariko bat da. Zuntzeko minerala da, eta xafletan, balazta-pastilletan, junturetan eta abarretan erabiltzen da isolatzaile edo zuntz-zementu gisa (uralita bezala ezagutzen dena), eta bere zuntzak, ikusezinak dira bistara, eta pertsona eta animaliek arnastu dezakete, handik 10 edo 20 urtera biriketako, urdaileko, pleurako, peritoneoko etab.eko minbizia sortuz.

Arriskuaren aurrean dauden langileek biriketako minbizia edukitzea 7 aldiz ohikoagoa da gainerako herritarrekin alderatuta, eta 12 aldiz ohikoagoa, langileak erretzaileak badira. Beste minbizia mota bat, mesotelioma pleurala, %80an zuntzaren inguruan egoteagatik sortzen da. Espainian urtero arrazoi honengatik mila pertsona inguru hiltzen dela kalkulatu da, nahiz eta laneko gaixotasun gisa ez aitortu.



Zenbait adituk kalkulatu dute hemendik 35 urtera minbizia sortzen duen zuntza inguruan izateak 500.000 heriotza eragingo dituela Europar Batasunean eta 10.000 heriotza Euskadin.

Hori dela eta, Europar Batasunak 2005erako debekatu egin zuen Estatu guztietan.

Beste alde batetik, sustantzia eta prestakin arriskutsuen 2001eko abenduaren 7ko Ministro-agindua (2001eko abenduaren 14ko EAO) amiantoa duten produktu eta zuntzen erabilera, ekoizpena eta merkaturatzea debekatzen du ekainaren 14€ aurrera, merkaturatzeko epea beste 6 hilabetez luzatuz.

Debeku hau eraginkorra izango da epe luzean, eta arrisku-bide bat suntsitu du, ekoizpena (arriskua nahiko kontrolatua dagoen tokia), baina amiantoa ez da gure bizitzatik desagretzen: Minbizia sortzen duen zuntzezko milaka tona daude eraikinetan, ur-hodietan, industrietako teilatu eta instalazioetan, etab.

Eraikinak erausteko, konpontzeko edo bertatik amiantoa kentzeko lanak oso arriskutsuak dira, derrigorrezko prebentzio neurriak bete arren, eta emaitzak ez dira onak. Lan hauetan arriskua handitu egiten da, eta ez die bertako langileei bakarrik eragiten, baizik eta inguruko beste pertsoneri ere bai, eta konponbide gabeko kutsadura larriak sor ditzake.


Mota honetako lan asko burutuko dira ziurrenik eraikin edo instalazio bateko materialetan amiantoa dagoela jakin gabe edo ezkutatuta, eta oharkabean arrisku egoera sor daiteke, inguruko langileentzako, herritarrentzako eta ingurumenerako ondorio larriak ekariz. Hondakin arriskutsuen kudeaketa txarrak arazoa larritu dezake, espezializatu gabeko enpresetan lana egiten delako, prebentzio egokirik gabe, eta arriskuan dauden langileei ez zaizkielako osasun azterketak egiten.

1965 eta 1985 artean, batez ere 1974 inguruan inportatu zuten amianto gehien. Aurreko mendearen 70. hamarkadaren erdialdean 100.000 tona amianto iritsi zela frogatua dago. 1965 eta 1985 artean eraikitako eraikin gehienek amiantoa dute, eraikinen elementuetan edo instalazioetan. Aditu batzuek diote Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritarrak milaka amianto tonen artean bizi direla. Enpresa ugari amiantoz egindako produktuak sartu zituzten. "Tona asko desagertu da, baina oraindik asko geratzen da eraikin eta industria instalazioetan". Beraz, amiantoa kentzeko, non dagoen jakitea garrantzitsua da.

2002ko maiatzaren 31n Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu zuen. *"Eusko Jaurlaritzak bultzatzea Udalen eta herritarren laguntzarekin pabilioi, eraikin eta instalazioetan dagoen amiantoaren inbentarioa egitera, amiantoa kentzeko lanetan langile eta herritarren osasuna babesteko."*

Erabaki hau hartu zenetik bederatzi urte igaro dira eta neurria bertan behera geratu zela ikusita, ASVIAMIE Elkarteak ondorengo testua proposatu du, Udaleko Osoko Bilkuran aztertu eta onartzeko, eta Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldeak sustatu eta lagundu egin nahi du bere garaian Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari emandako lana, eta Osoko Bilkuran aurkeztu du mozio bezala ondorengo lau puntuekin:

1. Udaleko Osoko Bilkurak Alkatetzari eskatzen dio, erabilera kontuan hartu gabe, lehendik dauden eraikinetan amiantoa dagoen/ez dagoen egiaztatzeko eskakizuna sartzeko, eta horrekin batera, obretako lizentziak eta eraberritzeko lizentziak arautzen dituzten udal ordenantzetan, amiantoa azaltzen den kasuetarako manipulazio, tratamendua kontrolatzeko eta amiantoa kentzeko arauak sartzeko.



2. Udaleko Osoko Bilkurak Alkatetzari eskatzen dio udalerrian amiantoa duten instalazioen mapa egiteko (amiantoa duten udal eraikinen inbentarioa eta amiantoa eduki dezaketen udalerriko eraikinen inbentarioa), amiantoa kentzeko lanen egokitasuna bermatzeko, langileak babesteko eta minbizia sor dezaketen hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko.

3. Kaltetutako herritarrei, hau da, amiantoa duten eraikinetan bizi direnei informazioa ematea, egokiak izan daitezkeen bitartekoak erabiliz, erabilerak ekar dezakeen arriskuen eta hartu daitezkeen eta hartu beharko lirakekeen neurrien berri emanez.

4. Amiantoa kentzeko obrak egin behar dituzten herritarrei diru-laguntzak emateko programa bat diseinatu eta aztertzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jn.

CAF enpresako sindikatu ordezkariak eta kaltetutako senitartekoek Udaleko talde sozialistaren bidez amiantoari buruzko puntua sartzeko eta eztabaidatzea eskatu dute.

Mozioak lau puntu ditu:

1.- Lehendik dauden eraikinetan **amiantoa dagoen/ez dagoen egiaztatzeko eskakizuna sartzeko eta** horrekin batera, obretako lizentziak eta eraberritzeko lizentziak arautzen dituzten **udal ordenantzetan**, amiantoa azaltzen den kasuetarako **manipulazio, tratamendua kontrolatzeko eta amiantoa kentzeko arauak sartzeko**

2.- Udalerrian amiantoa duten eraikinen mapa egiteko.


3.-Kaltetutako herritarrei, hau da, amiantoa duten eraikinetan bizi direnei **informazioa ematea**

4.-Amiantoa kentzeko obrak egin behar dituzten herritarrei diru-laguntzak emateko programa bat diseinatu eta aztertzea.

Dubreuil jn.

Ekimen hau bere taldeak Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aurkeztu zuela azaldu du eta batzordeko kide eta alderdi guztiek babestu zutela.

Bere garaian, 2001 urtean, Eusko Jaurlaritzak ere onartu zuen.



Jon Garcia jauna

CAFeko sindikatu ordezkari bezala eta Osoko Bilkurara etorri denak, adierazi du, Eusko Jaurlaritzako konpromisoaz gain 2006 urtean dekretu bat onartu zela eta amiantoaren tratamenduan bete beharreko zenbait neurri betetzera behartzen duela dekretu horrek. Ez da Legebiltzarraren borondatea betetzea bakarrik, Lege bat dago eta bete egin behar da.

Gonzalez jn.

Arazoa seriozki hartu behar dela esan du, jendea hiltzen baita horregatik.

Legea betetzeaz gain mozioan proposatzen diren neurriak bete egin behar direla uste du. Aurrekontuan aurreikusi behar dira gastu batzuk, neurriak bete ahal izateko.

Maiza and.

Mozioarekin bat egiten du, eta 2007an Udaleko sindikatu ordezkariak gobernu taldeari udalerrian amiantoaren inguruko inbentario bat egiteko eskaera egin zioten.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (EAJ/PNV 2, EA 1, PSE-EE (PSOE) 3, EB/Aralar 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.




Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hirugarren puntuaren berri eman du:

3.- “NAZIOEN MUNDUA-ERABAKITZEKO ESKUBIDEA” izenburuarekin EAK aurkeztutako mozioa.

Proposamena

GOIERRITARROK ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDE

Eguneroko itxituretatik irten eta langa pasatzeko erabaki sakona hartu dugu. Litekeena da guk denok Euskal Herriarentzat proiektu, egitura nahiz etorkizun ezberdinak nahi izatea. Baina demokrazian oinarritutako printzipio baten aldeko jarrerak elkartzen gaitu, **giza eskubide zibil eta politiko guztiak errespetatuz, autodeterminazioaren edo erabakitze eskubidearen aldekoak**, hain zuzen ere.



Mezu hau gizarteratzea, joera eta ideologia ezberdinekook elkarrekin egin beharreko bidea dela uste dugu, harik eta bide horrek erabakitzeko eskubidearen bidegurutzeraino eramaten gaituen arte, behintzat.

Horregatik guztiagatik, ondokoa aldarrikatu eta onartzen dugu:

- Euskal Herria nazio naturala da.
- Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea du.
- Euskal herritarrok dugu autodeterminatzeko eskubidea.
- Eskubide demokratiko unibertsala denez, Euskal Herrian eta nazioartean eskubide horren eskaera egingo dugu.
- Herritarrei publikoki honen berri eman.

Proposamena onartzeko gehiengoa: soila

Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Maiza and.

Aurkeztutako mozioaren oinarria edo sorrera azaldu du. Idiazaben herri kirolean aritzen den talde bat dagoela azaldu du, ideologia desberdineko jendea dagoela talde horretan, baina kirola beraien lotura izanik 2008an Eskoziara bidaia bat antolatu zutela, eta ez zutela kirola bakarrik eraman, horrekin batera kultura, folklorea, ohiturak etab....

Eskoziari, urte bete lehenago, 2007an, autodeterminazio eskubidea hitzartu edo onartu zen.

Harremana izateko beharra sortu zen orduan eta Nazioen Mundua ideia edo kontzeptua sortu zen, ideologia desberdineko pertsonen taldea izanik, guztiek partekatzen duten ideia edo pentsaera bat delako.

Horretan oinarrituta, urtean bi ekintza edo egitasmo burutzen dituzte, bat Larraitzen eta bestea Ordizian.


Mozioak 5 puntu onartzea eta defendatzea eskatzen du.

Leunda in.

Esan du EAK ez duela oso garbi jokatu. Eusko Alkartasunak mozioaren babesa kapitalizatu nahi izan duela uste du, baina Udalean mozioa babesten duten beste alderdi batzuk ere badaudela esan dio.

Maiza and.

Bere asmoa ez dela monopolizatzea, hori adierazi du. Azkeneko Osoko Bilkuran, 2010eko abenduaren 3an, mozioa sartzeko eskaera egin zuela jakinarazi du, baina Alkateak hurrengo Osoko Bilkurara arte itxaroteko eskatu zion. Nahiko denbora eduki dutela uste du.



Gainera, mozioa pasa den otsailaren 16ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aztertu zutela eta aldeko irizpena jaso zuela azaldu du.

Leunda jn.

Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean bere alderdiak mozioa onartu zuela esan du eta horregatik, mozioa bere taldearen babesean ere aurkeztu behar zela uste du.

Idazkari andreak

Jakinarazi du, Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean, mozioak EB/ARALAR eta EAJ/PNVren onespina jaso zuela.

Dubreuil jn.

Uste du ez dagoela beraien arteko adostasunik, eta beraz, alde batetik mozioaren lehenengo puntua bozkatu beharko litzatekeela uste du eta bestetik, mozioaren gainerako puntuak.

Gonzalez jn.

Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aurreratu zuen bezala, bere alderdia ez dago "nazio natural" kontzeptuaren alde, mozioaren 1. puntuan azaltzen da kontzeptu hau. Lurralde jakin bat nazio izateko oinarrizko lau arlo daudela uste du:

- .- Berezko hizkuntza
- .- Berezko kultura
- .- Ekonomia garapena eta
- .- Nazionatasun konzientzia

2. eta 3. puntuei dagokienez, gauza bera diotela ematen duen arren, ez da horrela. Etorkizuna erabakitzeke eskubidea autodeterminazio eskubidea gauzatzea da.


Eskubide guztiak errespetatzen ditu: Giza eskubideak, eskubide zibil eta politikoak. Mozioaren lehenengo paragrafoan koma bat falta dela uste du, giza eskubide zibil eta politiko guztiez ari den puntuan, eta ondorengoa esan beharko luke: "Giza eskubideak, eskubide zibilak eta politikoak."

Oraindik eskubide hauek errespetatzen ez dituzten pertsonak daudela uste du. Dirudienez orain hau aldatzen hasi da.

Bere alderdiak ez zuen hauteskudeen ondorioz zegokion hirugarren zinegotzia hartu, Alderdien Legearen kontra daudelako, eta EAK, aipatutako legearen kontra egonda ere, ez du modu berean jokatu eta bigarren zinegotzia hartu zuen. Ez du adostasunik ikusten.

Alkate jn.

Gonzalez jaunak zehaztutako koma sartzearen alde dagoela adierazi du, giza eskubide, zibil eta politikoez hitz egiten duenean. Horrez gain, mozio eskakizunetan puntu bat gehiago sartuko luke eta



“bizitzeko eskubidea”rena izango litzateke, eta horrekiko lotura duten gainerako eskubideak ere sartuko lituzke.

Maiza and.

Esan du ez duela tranpa horretan erori nahi eta eten bat egitea eskatu du.

Bere ustez ez dute gaia landu alderdi politikoen artean.

Gonzalez jn.

Erantzun dio esanez berak Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aurreratu zituela onartzen ez zituen zenbait gai edo ideia eta aipatu dituela dagoeneko.

Maiza and.

Adierazi du berak ez duela adierazi proposatu dituzten aldaketak sartzeko inongo arazorik.

Leunda jn.

Mozioa Nazioen Munduarena dela uste du.

Beraiekin hitz egin daitekeela esan du baten batek.

Manrique jna.

Berari ez zaio ondo iruditzen Osoko Bilkuran arrotzak diren pertsonen agindupean egotea eta Osoko Bilkurak egokiak iruditzen zaizkion erabakiak hartzeko legezko eskumena duela uste du.

Maiza and.

Bere ustez sintonizatzeko modukoa den talde bati ateak ixtea ez da ona. Nazioen mundua talde bat da, ez da alderdi politiko bat, eta alderdi politikoak ez diren taldeak onartzea ona da.

Aldez aurretik zehaztu diren aldaketak mozioan sartzea ondo iruditzen zaiola errepikatu du.


Alkate jn.

Puntu honen eztabaida eta bozketa bilkuraren bukaerarako uzteko proposamena egin du, zinegotzi batzuek lanera joateko presa dutelako.

Eztabaida eta bozketa atzeratu egin dira.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



4.- ELA eta LABek Udalaren akordioaren kontra jarritako administrazio auzietako errekurtsoren berri ematea, langile publikoei soldata jaisteagatik.

1172 DEKRETUA

HONAKOA IKUSIRIK:

- Ohiko administrazio auziekiko errekurtsua, 1567/10-3 zenbakikoa, ELA Sindikatu Konfederazioak ipinitakoa 2010eko urriaren 1eko Osoko Bilkuraren aurka, maiatzaren 20ko 8/2010E Errege Dekretuan ezarritako neurriak betetzea onartzen denekoa.
- Euskal Herriko Justiziako Epaitegi Goreneko Administrazioa auzietarako Salako Idazkari Judizialaren errekerimendua, jatorrizko espediente administratiboa bidaltzeko.

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

- * ELA Sindikatu Konfederazioak ipinitako 8/2010 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsuan Udalaren agerraldia onartzea.
- * Auzietarako botere orokorra Alfonso Legorburu Ortiz de Urbina Prokuradore jaunari ematea, aipatutako eginbideetara aurkezteko.
- * Aipatutako prozesuaren defentsa lanetarako Javier Hernaez Manrique jauna izendatzea, Zuzenbidean lizentziatua.
- * Euskal Herriko Auzitegi Gorenari bidaltzea administrazio espedientea.
- * Honako Dekretua espedienteko interesdun guztiei jakinaraztea, bederatzi eguneko epean Autoetara aurkeztu eta gerturatzeko deia eginez, deia banakakoa izango da.


1173 DEKRETUA

HONAKOA IKUSIRIK:

- Ohiko administrazio auziekiko errekurtsua, 1030/2010 zenbakikoa, Langile Abertzaleen Batzordeak-LAB ipinitakoa 2010eko urriaren 1eko Osoko Bilkuraren aurka, maiatzaren 20ko 8/2010E Errege Dekretuan ezarritako neurriak betetzea onartzen denekoa.
- Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegiaren errekerimendua, administrazio espedientea igortzeko.

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

- * Langile Abertzaleen Batzordeak-LABek ipinitako 1030/2010 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsuan Udalaren agerraldia onartzea.



* Auzietarako botere orokorra Maria Luisa Aranguren Letamendia Prokuradore andreari ematea, aipatutako eginbideetara aurkezteko.

* Aipatutako prozesuaren defentsa lanetarako Javier Hernaez Manrique jauna izendatzea, Zuzenbidean lizentziatua.

*Donostiako Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegira bidaltzea administrazio espedientea.

* Honako Dekretua espedienteko interesdun guztiei jakinaraztea, bederatzi eguneko epean Autoetara aurkeztu eta gerturatzeko deia eginez, deia banakakoa izango da.

Jose Miguel Santamaría Ezeiza alkate jaunak agindu eta sinatu du, Ordizian, bi mila eta hamarrekoko abenduaren 21ean eta hori guztia, nik, Ordiziako idazkariak, egiaztatu dut.

Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkateak hurrengo puntuari heldu dio.

5.-Eraikin eta etxebizitzetako irisgarritasun lanak egiteko diru-laguntzen ordenantza.

Proposamena


Ordenantza honek etxebizitzetan sartzeko sustapena eta aipatutako obren diru-laguntzak arautzea ditu xede.

Irisgarritasun arloan indarrean dagoen araudiak, desgaitasuna duten pertsonen aukera berdintasunaren eskubidea berresten du, eta aldi berean, ekintza positiboko neurrien beharra aitortzen du, desabantailak eta zailtasunak aurreikusteko eta orekatzeko, botere publikoa eta orokorrean gizartea beharrezko erabakiak hartzera bultzatzen ditu, besteak beste, pertsona horien sarbidea ahalbidetzeko eta bermatzeko era erreal eta efektiboan ingurune fisikora bere zentzu zabalean, eta hiri-eremura, espazio publikoetara eta eraikinetara.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikuluan zehazten denaren arabera, Udalari dagokio ordenantzak onartzea.

Aipatutako Legearen 49 artikulua zehazten denaren arabera, araudi eta ordenantzak honako prozedura jarraitu beharko dute:

1. Osoko bilkuraren hasierako onarpena
2. Jende aurreko informazioa eta interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko hogeita hamar eguneko gutxieneko epea ematea.
3. Epe horretan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunen ebazpena eta osoko bilkuraren behin betiko onarpena.



Erreklamaziorik ego iradokizunik aurkeztuko ez balitz, hasierako erabakia behin betiko bihurtuko da, erabaki berririk hartzeko beharrik izan gabe.

2010eko otsailaren 17ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

1.- Etxebizitzetan Irisgarritasunaren Sustapena arautzen duen Ordenantzaren hasierako onarpena eta diru-laguntzak arautzea.

2.- Ordenantza jendaurrera zabaltzea iragarki taulan eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.

3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Ordenantzak behin betiko onartuko dira.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jn.

Legealdi hasieratik arkitektura oztopoak kentzea eta irisgarritasuna hobetzeko ekintzak sustatzea oinarritzkoa izan dela adierazi du. Maila publikoan gauza dezente egin dela azaldu du, Irisgarritasun Plana, hiria hobetzeko neurriak hartzea.... etab. eta maila publikoan oraindik egiteko asko badago ere, maila pribatuan irisgarritasuna hobetzeko neurri batzuk hartzea beharrezkoa zela ikusten zen.

Alkate jaunak, proposatu du, "proiektu teknikoen edukiak" 9. paragrafoko 9.1. artikuluan Eskola Ofizialaren onespeneraren eskakizuna kentzeko. Bere ustez ez da beharrezkoa eskatzea, gehienetan enpresa instalatzaileak berak egiten baitituen obrak direlako, eta horrek Jabekideen Elkarteari gastu gehigarri bat kentzea ekarriko du.

Gonzalez jn.


Diru-laguntzen banaketari buruzko informazioa eskatu du.

Alkate jn.

Formula azaldu dio.

Kontu-hartzaile jaunak

Eraikuntza, Obra eta Instalazioen Zergan ipini beharreko elementu edo aparatuak ez direla zehazten, hori argitu du, soilik obra bera dena azaltzen dela.



Dubreuil jn.

Ordenantza onartzearen alde bozkatuko dutela jakinarazi du, baina izenburuak honakoa izan beharko litzatekeela uste du: “Etxebizitzetan irisgarritasuna sustatzeko eta diru-laguntza emateko ordenantza”.

Ordenantza hau onartuta oso pausu garrantzitsua ematen dela uste du baina lan ildo hori jarraitu behar dela eta harantzago joan behar dela uste du, eta diru-laguntza banatzeko orduan pertsonen baliabide ekonomikoak aztertu behar direla.

Manrique jn.

Ordenantza onartzearen alde egingo du, orain arte arautu gabe zegoen arlo bat arautzea garrantzitsua dela iruditzen zaiolako.

Kontu-hartzaile jaunak

Aurrekontu-ekitaldi bakoitza eta dagoen dirua kontuan hartu behar direla esan du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 2, EA 1, PSE-EE (PSOE) 3, PP 1, IU-EB/ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, zehaztutako aldaketarekin aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak hurrengo puntuari heldu dio.


6.-Aparkaldi mugatua arautzen duen ordenantza aldatzea.

Proposamena

2005eko urtarrileko Osoko Bilkuran Aparkaldi Mugatua arautzen duen Ordenantza onartu zen, eta 2008ko uztailaren 29an aldaketa batzuk egitea onartu zen.

Zerbitzuetako Delegazioak Ordenantzan aldaketak egitea proposatu du berriro, 2010eko azaroaren 17ko txosten juridikoan proposatutako aldaketetan oinarrituta.

Ordenantzaren Bigarren Xedapen Gehigarriak zehazten du, Osoko Bilkuraren erabaki bidez eta Ordenantzen aldaketei dagozkien tramiteei jarraitu beharrik gabe, alde aurreko txosten teknikoaren bidez lehendik zehaztutako bideetako aparkaldi mugatuko egunak eta orduak aldatu ahal izango direla.



Horrekin batera, eta prozedura bera jarraituz, 3. artikuluko aparkaldi mugatuko bideak aldatu ahal izango dira, zabalduz edo murriztuz, berriak ipiniz eta lehendik daudenak kenduz.

Azaldutakoa ikusita, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROPOSAMENA

1.- Aparkaldi Mugatuko Eremuak arautzen dituen Ordenantzan ondorengo aldaketak egitea onartzea:

3. artikulua. 3. paragrafoa. 1. puntua.

Hau esaten duen tokian:

1.- Gudarien Etorbidea (2 plaza)

Honakoa esan behar du:

1.- Gudarien Etorbidea (13 plaza, 8 Barandiaran plaza aldera eta 5 Barrena parke aldera)

2.- Ordenantzaren gaztelerazko bertsioan ondorengo akats tipografikoak zuzendu.

7. artikulua. 2. paragrafoa (arau-hauste arinak)

Hau esaten duen tokian:

1.- Rebasar el horario de permanencia autorizado.

Honakoa esan behar du:

Rebasar el tiempo de permanencia autorizado.

Xedapen Gehigarriak LEHENA.-

Hau esaten duen tokian: “(...) en horario de lunes a viernes, de nueve a trece horas y de dieciséis veinte horas, (...)”


Honakoa esan behar du:

“(...) en horario de lunes a viernes, de nueve a trece horas y de dieciséis a veinte horas, (...)”

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:



Alkate jn.

Aldaketa txikiak zeintzuk izan diren azaldu du, aparkaldi mugatuko plaza kopurua handitzea izango da oinarrian, eta Ordenantzako gaztelerazko bertsioan aurkitutako akats tipografikoren bat zuzentzea.

Maiza and.

Jendea azkenaldian kexu dela adierazi du, udaltzainek isunak jarri besterik ez dutela egiten eta "harrapatzera" doazela uste dute. Hasteko, aparkatzeko gehienezko denbora gainditu duten kasuetan ibilgailuan ohar bat ipini beharko litzatekeela uste du horren berri emanez, eta berriro egiten badute isuna jarri.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 2, EA 1, PSE-EE (PSOE) 3, PP 1, IU-EB/ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak hurrengo puntuari heldu dio.


7.- EIOZen hobaria (Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zerga).

Proposamena

Eraikin, Obra eta Instalazioen Zerga Arautzen duen Ordenantzaren berri ematen da. Ordenantza horren 8-1º artikulua ezartzen duenaren arabera, interes berezikoak diren edo udal erabilerarako interesgarritzat jotzen diren eraikin, instalazio eta obrei zergaren kuotan %95eko hobaria emango zaie, beti ere izendapen hori arrazoitzeko behar adina ezaugarri sozial, kultural, historiko-artistiko eta enplegu-sustapenekoak baleude.

Ondoren zerrendatzen diren merkatariak aipatutako hobaria eskatu dute.

WORD UP HIZKUNTZ AKADEMIA
NEESS MEN
JOSS-ANN
PINOCHO
GARMENDIA ITURGINTZA
NEREA SERRANO HORTZ KLINIKA
UGALDE ARDOAK



GOIERRIKO BARATZA

Uztailaren 15/1989 Eraikuntza, Instalazio eta Obretako Foru Arauko 5.1.a) artikularen arabera, (martxoaren 19ko Herri Zergen Sistema berritzeko 4/2003 Foru Arauak aldatutakoa), hobariak hartzeko aukera duten interes edo erabilera publikoko izendatzea dagokio Osoko Bilkurari.

2011 ko otsailaren 16ko Plenorako Gaien Batzordeak aldeko irizpena eman dio eskatutako hobari horri, honako ezaugarri hauek dituelako:

2010eko martxoan, Tokiko Gobernu Batzordeak, Kriaren aurkako Planaren barruan hartu beharreko neurrien artean, EOIZen %95 arteko hobaria onartu zuen, denda berriak ipintzeko obrentzako eta lehendik daudenak berritzeko, merkataritza sektoreari zuzenean eragiten dion krisian enplegua sustatzeko neurri gisa.

Hori ikusita,

AKORDIO PROIEKTUA.

Ondoren aipatzen diren denda hauetan egingo diren obrei interes berezia eta udal-erabilpena aitortzea.

**WORD UP HIZKUNTZ AKADEMIA
NESS MEN
JOSS-ANN
PINOCHO
GARMENDIA ITURGINTZA
NEREA SERRANO HORTZ KLINIKA
UGALDE ARDOAK
GOIERRIKO BARATZA**

Aipatutako obrei ematea Eraikin, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren %95eko hobaria.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.


Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jn.

2010 urtearen hasieran eta krisiaren aurkako neurri gisa, merkataritza babesteko eta sustatzeko neurriak onartu zirela jakinarazi du.

Proposatutako zortzi dendetan zergaren %95eko hobaria egitea proposatzen da.

2011 urtetik aurrera, EOIZen hobaria emateko irizpidea %95ekoa izango da sektore berriko denda berrientzako, %75 lehendik dauden sektoreetako denda berrientzako eta %50 lehendik dauden dendak berritzeko.



Gonzalez jn.

Proposamen honetan eztabaidatu eta onartuko zena, aplikatuko zen hobariarentzako irizpideak izango zirela uste zuen.

Erabaki eta akordioak hartzeko orduan ez dituztela kontuan hartzen, hori sentitzen du. Hori dela eta abstenitu egingo da.

Alkate jn.

Ordenantza Fiskalean %95 arteko hobaria aurreikusten dela esan du, baina neurria iragartzean bere alderdiak akats bat egin zuen eta %95eko hobaria izango zela esan zuten, "arteko" hitza gabe, aurten beraz, denda mota guztiei %95eko hobaria aplikatuko zaie.

Dubreuil jn.

Foru Aldundiak zehazten duen bezala "interes edo erabilera publikoko" obra izendatzen badira horrelakoak, esan du ez litzatekeela beharrezkoa izango hobari bakoitza Osoko Bilkuran onartzea.

Manrique jna.

Ogasun Delegazioak diktamen bat egin, bertan proposatzen badu, eta ondoren Osoko Bilkurak zuzentzen badu nahikoa iruditzen zaio.

Gonzalez jn.

Bere taldea abstenitu egingo dela adierazi du, baina ez da hobariaren proposamenaren aurka dagoelako baizik eta krisiaren aurkako Plana egitean eta aztertzean ez dituztelako kontuan hartu.

Dubreuil jn.

Adierazi du, beti krisiaren aurka hartu behar diren neurriak eztabaidatzeko eta gobernu taldeko kideei eta gainerako alderdi politikoei ere zabaltzeko eskaera egiten aritu dela. Ez da horrela izan baina guztien artean eztabaidatzearen eta proposatzearen aldekoa da.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:


Aldeko botoak: 7 (PNV 2, EA 1, PSE-EE (PSOE) 3, PP 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 2 (IU/EB-ARALAR)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.





Jarraian, Alkateak hurrengo puntuari heldu dio.

8.- 2010 urterako Kooperaziorako diru-laguntzen deialdia.

Proposamena

Kooperazio proiektuak egiteko gobernu kanpoko erakundeentzako diru-laguntzak arautzen dituen araudia jarraituz eta 2010 urteko ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren, 22 proiektu aurkeztu dira. Erabiltzeko moduan dagoen aurrekontu partida 90.000 eurokoa da.

Proiektuak aztertu ondoren eta 2010eko otsailaren 17ko Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Ondoren zehazten diren diru-laguntzak onartzea, honako proiektu eta erakundeei banatuko zaiena:

1- Taupadak . *Módulo ganadero para la consolidación de la autonomía indígena del TIPNIS, Bolivia.*

Ayuda otorgada: 7.895 euros

2- Solidaridad Internacional, *Ampliación de obras de agua potable y saneamiento en el poblado de Boca de Sábalos Municipio de El Castillo Departamento de Rio San Juan, Nicaragua.*

Ayuda otorgada: 7.621 euros

3- Oscar Romero, *Mejorar las condiciones de salubridad en la comunidad asentamiento San Francisco Canton La Puerta Municipio de Tacaba, El Salvador.* Ayuda otorgada: 7.375 euros

4- Mundu Bat, *Fortalecimiento del pueblo Guaraní para la implementación de las autonomías indígenas en Bolivia.*

Ayuda otorgada: 7.315 euros

5- Mugen Gaietik, *Participación ciudadana en la asignación de recursos públicos con enfoque de género en los municipios de Lima Sur. Perú.*

Ayuda otorgada: 6.302 euros


6- Calcuta Ondoan, *Construcción de un hogar-centro de salud para mujeres de alto riesgo de vulnerabilidad en Calcuta, India.*

Ayuda otorgada: 6.979 euros

7- Manos Unidas, *Atención integral a la población problemática de la violencia de género en los departamentos de Cortés y Atlántida, Honduras.*

Ayuda otorgada: 5.172 euros

8- Activos por un mundo solidario, *Integración y accesibilidad de jóvenes con capacidades diferentes en Diriamb, Nicaragua.*



Ayuda otorgada: 5.770 euros

9- FISC, *Mejora de las condiciones sanitarias y nutricionales de la población del barrio de Nueva Vida, Ciudad Sandina, Nicaragua.*

Ayuda otorgada: 6.411 euros

10- Fondo Formación, *Fortalecimiento y capacitación organizacional para la inserción sociolaboral de personas en situación de dificultad del Sur de Quito, Quitumbe y Eloy Alfaro, Ecuador.*

Ayuda otorgada: 6.715 euros

11- ACP, *Mejora de la atención sanitaria básica para los 5501 habitantes de la localidad de Djibanar, Región de Sedhiou, Senegal.*

Ayuda otorgada: 5.791 euros

12- Rokpa, *Rescate y preservación de la cultura tibetana a través de la educación en la escuela de Yushu, Noroeste de Tibet: respuesta a necesidad inminente de redistribución del alumnado durante la reconstrucción de la escuela derruida tras el terremoto, Tibet-China.*

Ayuda otorgada: 1.697 euros

13- Gazteak eta Garapena / Jóvenes y Desarrollo, *Apoyo a la formación e inserción social de niños de la calle, Benin.*

Ayuda otorgada: 6.174 euros

14- Serso San Viator. *Promoviendo y fortaleciendo las capacidades intelectuales, artística y lúdicas de los niños y niñas la 4ta, 5ta y 6ta zona Collique, Lima, Bolivia.* Ayuda otorgada: 3.059 euros

15- Herriak Elkarlanean/Misiones Diocesanas, *Capacitación para agentes sociales, Paraguay.*

Ayuda otorgada: 5.724 euros

Ondorengo erakundeek eskatutako diru-laguntza eskaerak baztertu:

1- Pauso Media, *ONDAS PARA RECONSTRUIR Radios comunitarias protagonistas en la reconstrucción ciudadana tras el terremoto 2010, Chile.*

2- Phagma Drölma (*Fortalecimiento de la cooperativa tibetana de Dhargyeling: por el desarrollo socio-económico de la comunidad tibetana refugiada, India*).


3- Ilargi Beltza (*Consulta móvil de ginecología- ambulancia, Nicaragua*)

4- Berpiztu Elkartea (*Educación y Futuro en Mabewele, Guinea Ecuatorial*)

5- Lurrean Giza Laguntza (*Elektrizitatea indarra sortzeko ur-jauziaren generadorea jarri, Nepal*).

6- Herriak Elkarlanean/Misiones Diocesanas, (*Educación en la comunidad de Lavanneau Jacmel, Haití*).

7- ACNUR (*Llamamiento acción humanitaria por inundaciones en Pakistán*).



Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta:

Alkate jn.

Erabiltzeko moduan dagoen aurrekontu partida 90.000.-€ eurokoa da.

Proiektu desberdinen artean dirua banatzeko proposamena aurkeztu du, guztira 15 dira diruz lagundutakoak.

Dubreuil jn.

“Urdanetako Batzordean” erabaki zen Peru, Mexiko, Filipinak eta Haitiko proiektuak lehenetsiko zirela diruz laguntzeko orduan.

Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean esan zuen bezala, proiektu hauek lehentasunezkoak izan daitezten, deialdia bera ere norabide horretara bideratu behar da.

Hurrengo deialdian azaldutako lehentasunak kontuan izatea espero du.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 2, EA 1, PSE-EE (PSOE) 3, PP 1, IU-EB/ARALAR 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.




Jarraian, Alkateak presazko bidetik sartutako hurrengo puntuari heldu dio.

9.- Oianguren eta hari dagozkionen administrazio kontzesioaren ebazpena.

Alkate jaunak puntua eguneko gai ordenan sartzeko arrazoiak eman ditu, ez da Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aztertu.

Puntuaren presazko izaera arrazoitu du. 2010eko azaroaren 16ko Udaleko Osoko Bilkuran administrazio kontzesioa onartu zen eta Jabetza Erregistroan kontzesioaren hipoteka baliogabetzeko eskatuta, honek, 2011ko otsailaren 22an baliogabetzearen aurkako kalifikazioa bidali du, hirugarren titular bat dagoelako eta ez duelako prozedurako entzunaldi prozesuan parte hartzerik izan eta beraz ezin izan da ezer baliogabetu. Puntua eguneko gai ordenan sartzeko premia dago.



Lehenik eta behin, aurkeztutako puntuaren presako izaera bozkatu da.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Osoa.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 2, EA 1, PSE-EE (PSOE) 3, PP 1, 2 IU-EB/ARALAR)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ondorioz, aurkeztutako gaiaren presazko izaera onartu da.

Proposamena

2010eko irailaren 27an Ordiziako Udalak Jabetza Erregistroan eskatu zuen administrazio espedientea aztertzeko Oiangurengo eta hari dagozkion kontzesio administratiboaren kargen titulartasunaren egiaztatzea.

Egiaztatzea jaso eta gero, Udalak, 2010eko urriaren 4an, kontzesio ebazpenaren prozedura hasteko inskripzioa eskatu zuen, eta horrekin batera, dagokion araudiak agintzen duen bezala, kargen titulartasunaren egiaztatzea ere eskatu zuen interesdunak ezagutu ahal izateko eta alegazioak aurkezteko epea emateko. Hala ere, gero azalduko den bezala, ez zioten egiaztatu hain bidali Udalari, eta irailaren 28ko egiaztatzearen eskubide eta kargen titular gisa zeudenak hartu ziren kontuan jardueretan.


Aipatutako entzunaldi-izapidea ELKARGI S.G.R. eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra kontuan hartuta egin zen.

Ondoren, 2010eko azaroaren 16an, eta prozedurari amaiera emateko, Osoko Bilkurak aipatutako kontzesioaren ebazpena onartu zuen, Jabetza Erregistroari horren berri eman zitzaion eta administrazio kontzesioa eta ondorengo izapideak, kargak, indargabetzeko eskaera egin zitzaion.

2011ko otsailaren 22ko sarrera-data eman zitzaion Udaleko Erregistro Orokorrean Jabetza Erregistroko arduradunaren jakinarazpenari, aipatutako indargabetzearen aurkako kalifikazioa azaltzen da bertan, 2010eko urriaren 7ko egiaztatzearen azaltzen den titular batek ez duelako entzunaldi-izapidea gauzatzeko aukerarik izan, Erregistroak egin zuen egiaztatzea, baina ez dio Udalari jakinarazi 2011ko otsailaren 22ra arte. Egoera honetan, administrazio kontzesioaren kargen titular den Garikoitz Ayerbe Garmendia jaunari entzunaldi-izapidea egiteko aukerarik eman.

Horiek horrela, honako akordio hau onartzea proposatu da.

1.- Garikoitz Ayerbe Garmendia jaunari entzunaldi-izapidea bideratzeko aukera ematea, eta egokiak iruditzen zaizkion alegazioak aurkezteko 10 eguneko epea ematea, eta 2010eko urriaren 1eko Erabakiaren egiaztatzea bidaltzea. (egiaztatzea prestatu gaur egungo datarekin)



2.- Garikoitz Ayerbe Garmendia jaunak zehaztutako epean alegaziorik egiten ez badu, administrazio kontzesioaren ebazpeneko 2010eko azaroaren 16ko Erabakia baliokidetuko da eta akatsa zuzenduta.

3.-Dekretu hau interesdunei helaraztea

Proposamena onartzeko gehiengoa: Osoa.

Eztabaida.

Alkateak esku-hartzeko txanda irekita, honako hauek izan dira laburbilduta: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 9 (PNV 2, EA 1, PSE-EE (PSOE) 3, PP 1, 2 IU-EB/ARALAR)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.

10 minutuko etenaldia egin da. Berrito Osoko Bilkura berrabiarazi da eta eguneko gai zerrendako 3. puntuaren eztabaidari heldu zaio.



3.- “NAZIOEN MUNDUA-ERABAKITZEKO ESKUBIDEA” izenburuarekin EAK aurkeztutako mozioa.

Etenaldia amaitzean EAKo ordezkariak eta ARALARko ordezkariak jakinarazi dute bi taldeek babesten dutela mozioa.

Jarraian aurkeztutako proposamena bozkatu dute.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:


Aldeko botoak: 2 (EA 1, IU/EB-ARALAR 1)

Kontrako botoak: 4 (PSE-EE (PSOE) 3)

Abstentzia: 2 (PNV 1, IU-EB/ARALAR 1)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena ez du onartu.

Bozketa egin eta gero, eta Txurruka eta Manrique jauna joan eta gero, Dubreuil jaunari iruditzen zaio mozioak garrantzia politiko handia duela eta Osoko Bilkurako zinegotzi guztiak bertan egon beharko luketela.



Alkate jn.

7 zinegotzi daudela esan du, eta PP izan ezik, gainerako alderdien ordezkariak bertan daudela adierazi du.

Mozio bat sartzea proposatu da, eta honakoa dio:

a.- Lehenengo paragrafoko esaldi batean koma bat sartzea “Baina demokrazian oinarritutako printzipio baten aldeko jarrerak elkartzen gaitu, **giza eskubide guztiak, eskubide zibil eta politikoak errespetatuz, eta autodeterminazioaren edo erabakitzeke eskubidearen aldekoak,** hain zuzen ere.”

b.- Mozioaren 1. puntuan “natural” hitza kentzea.

c.- Mozioan 5. puntu bat sartzea, honakoa dioena “bizitzeko eskubidea eta horrekiko gainerako eskubideak gauzatzea.”

d.- Mozioaren 5. puntua 6. izatera pasatzen da.

Mozioa

Eguneroko itxituretatik irten eta langa pasatzeko erabaki sakona hartu dugu. Litekeena da guk denok Euskal Herriarentzat proiektu, egitura nahiz etorkizun ezberdinak nahi izatea. Baina demokrazian oinarritutako printzipio baten aldeko jarrerak elkartzen gaitu, giza eskubide guztiak, eskubide zibil eta politikoak errespetatuz, eta autodeterminazioaren edo erabakitzeke eskubidearen aldekoak, hain zuzen ere.

Mezu hau gizarteratzea, joera eta ideologia ezberdinekook elkarrekin egin beharreko bidea dela uste dugu, harik eta bide horrek erabakitzeke eskubidearen bidegurutzeraino eramaten gaituen arte, behintzat.

Horregatik guztiagatik, ondokoa aldarrikatu eta onartzen dugu:

- **Euskal Herria nazio bat da.**
- **Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeke eskubidea du.**
- **Euskal herritarrok dugu autodeterminatzeko eskubidea.**
- **Eskubide demokratiko unibertsala denez, Euskal Herrian eta nazioartean eskubide horren eskaera egingo dugu.**


Jarraian mozio hau sartzea bozkatuko da:

Mozioa sartzeko bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (PNV 1, EA 1, IU/EB-ARALAR 2, PSE-EE (PSOE) 2)

Kontrako botoak: 0



Abstentzia: 1 (Marañon andrea abstenitu egin da)

Jarraian mozio hau sartzeari bozkatuko da:

Mozioren bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 4 (PNV 1, EA 1, IU/EB-ARALAR 2)

Kontrako botoak: 3 (PSE-EE (PSOE))

Abstentzia: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian hurrengo puntua aztertu da.

10.-Galde-eskeak.

- Maiza andreak jakinarazi du Kulturako Aholku Batzordea eratuko dutela eta alderdi politiko desberdinei Batzordera joateko ordezkari bana izendatzeko eskaera egin die.

.....

- Dubreuil jaunak adierazi du Osoko Bilkura honetan eztabaidatzeko mozio bati sarrera eman ziola eta komunitatearen mesederako lanei buruzkoa zela mozioa, askatasuna ukatzen duten zigorrak ordezkatzeko, eta administrazio zigorren ordezkari lanak egiteko aukera ere aztertzea proposatzen zuen mozioak.

- Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak Osoko Bilkuran puntua sartzeari onartu zuela esan du eta ez dutela Eguneko Gai Ordenan sartu, eta ez sartu izanaren arrazoirik ez diotela eman.


Alkate jaunak erantzun dio esanez berak denbora gehiago eskatu zuela mozioa hobeto aztertu ahal izateko.

Horrekin batera, jakinarazi du, mozioak otsailaren 22ko sarrera eguna duela.

Dubreuil jaunak esan du otsailaren 16ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean eztabaidatu zela mozioren puntua eta EAK, PSOEek eta EB/ARALARek mozioa sartzeari alde bozkatu zutela.

Alkate jaunak proposamena ona iruditzen zaiola esan du eta beharbada gaizki-ulertuak egon direla baina ez duela arazorik puntua gaurko bilkuran sartzeko edo hurrengo bilkurarako uzteko.

Maiza andreak Dubreuil jaunari esan dio mozioa gaur bertan aztertuko lukeela berak aukera hori edukita, proposamena ona iruditzen baitaio.



Leunda jaunak Dubreuil jaunari esan dio honek guztiak erakusten duela Gobernu Batzordean gauzak erabakitzeke ezintasunak daudela eta harritu egiten duela alderdi sozialistak Osoko Bilkuran mozioak sartzen hasi delako, legealdiaren hasieran horren aurka egonda.

Dubreuil jaunak erantzun dio esanez egia dela, hasieran gobernu taldearen aurka egiten zuten mozioak eztabaidatzearen eta sartzearen aurka zeudela, baina krispaziorik ez sortzeko iritzia aldatu dutela adierazi du.

Leunda jaunarekin bat egiten duela esan du, Gobernu Batzordean aztertzeke moduko gaia dela esatean, baina aipatutako Batzordean eskaria ez denez bideratu, Osoko Bilkurara ekarri du. Mozioak berak Gobernu Batzordeak berak gaia aztertzeke eskatzen du. Gobernu taldeak akordioak adosteko gaitasun urria erakusten du.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.